

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian Lizentziatua eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkari denak, honako

IRIZPEN HAU EMATEN DU:

Hil honen 19an, Onomastika Batzordeak Zarautzen eginiko bilkuran, beste gain batzuen artean, honako irizpen hau onartu zuen:

“3.2.1. Jarraian Jose I. Arakama, Leioako Udaleko Euskara Zerbitzu buaruaren gutuna irakurtzen da, zeinetan Leioako udalean izaera administratiboa duten auzoen idazkeraz, *Artaza*, *Elejale* eta *Lamiaco*, hain zuzen ere, galdetzen duen. Kontutan harturik gaur egun bertoko euskaldunek *Artatza* eta *Elexalde* izenak erabiltzen dituztela eta *Artaza* eta *Elejalde* erdaraz egindako soinu aldatetak direla, Batzordeak **Artatza**, **Elexalde** eta **Lamiako** izenak berrestea erabakitzen du.”

Eta hala adierazteko, izenpetzen du Bilbon mila bederatziehun eta laurogeita hamaseigarreneko otsailaren hogeian.

On ikusia:  
E. Knörr Borràs,  
batzordeburua

Mikel Gorrotxategi,  
batzordeko idazkaria